

BOST NAZIOAK

Bihar hastekoa zen rugby txapelketa kilin-kolon jarri du Golkoko gerrak

Eskozia eta Ingalaterraren arteko lehia ikusgarria iragartzen da

Pertsiar Golkoko gerrak Bost Nazioen Txapelketa jokatzearagotzi dezake. Rugbyko International Board erakundeak behintzat argi esan zuen: «Gerra pizten bada, txapelketa bertan behera utziko dugu, automatikoki». Jokalari eta teknikoei ere gogo onez hartuko lukete horrelako erabakia.

XABIN MAKAZAGA / DONOSTIA

International Boardek adierazi zuen legez, «ezinezkoa da, geure soldaduek gerra egiten duten bitartean, guk Bost Nazioen festa ospatzea Frantzia». Lehen ere horrelakorik eman da. Mundu Gerrak izan ziren urteetan ez zen jokatu, eta ezta 1972an, Irlandako egoera gatazkatsua medio. Pertsiar Golkoko gerra izan arren Bost Nazioen Txapelketa jokatzeko bada, britainiarren arteko lehia ikusgarria iragartzen da; Eskozia eta Ingalaterraren artekoa, batipat.

Eskoziak, 1.990ean txapelduna partidu guztiak irabazita, rugbyrik ederrena jokatzeko du joko sarri zabalduz ete meletan ere indartsu. Kalitate handiko jokalariek ditu, edozein unetan partidua beren alde erabakitzeko modukoak. Sole harroina, Hastings anaiak, Jeffrey... Ingalaterrak ordea egutegi ezin hobea du. Twickenham zelaiaren jokatu du Eskoziak eta Frantziaren kontra, eta kanpoan Wales eta Irlandaren kontra.

HIRUGARREN LERRO INDARTSUAK Ingalaterrak zein Eskoziak hirugarren lerro indartsuak dituzte, eta ostikatzaila onak. Bien



Wallesek entseiu gehiegi lortzeko adina indarrik ez duela dirudi.

arteko jokoa ez da nolanahikoa izango. Parise Frantzia eta Eskoziak jokatu duten txapelketaren estreinu-partidua erabakiorra izan daiteke hala ere. Daniel Dubrocaren hamabostekoak garaipena lortzen badi, tituloa ere eskuragarria izango zaio. Larogitako hamarkadan J. Fouroux selekzionatzailearekin nagusi izan dira Bost Nazioetan, baina iaz porrot izugarria ezagutu zuen.

Serge Blanco kapitainak eta Lagisquet, hiru laurdenetako lerroko

zabaltzaileak, Berbizier erdi-melearekin batera, Frantziako selekzioaren oinarria dira. Hirugarren lerroan nobedade nabarmenenak Benazzi marokiarra eta Melville hegoafrikarra dira, biak nazionalizatuak.

ESKOZIA GARAIPENARENA ERREPIKATZERA

Eskoziak, iaz Frantziari 21-0 nagusitu zitzaiona Murrayfielden, ohorezko tituloa berreskuratzeko erronka du. Ian McGeechan selekzionatzaileak or-

✓ International Board erakundeak Golkoko gerra piztuz gero, Bost Nazioen Txapelketa automatikoki bertan behera utziko zuela adierazi zuen, eta ez da ziurra jokatu denentz.

Irlanda eta Wales 'Egurrezko Koilara' ez jasotzeko gogor lehiatuko dira, baina elkarren arteko partidua galtzen duenak zail izango du arriskua ekiditea.

dea, errespetu handia dio Frantziari. Potentzialki txapelketako talderik onena osatzen duela ere esan du.

Irlanda bosten artean ahulena izan daiteke, jokalariek erabat amateurrez osatua bait dago. Teknikoki maila eskasagoa duten arren, zelaian borrokarako grina izugarria erakusten dute eta ez dira erraz errendatzen. Wallesekin arazo larriena berriz, hamahirunakako rugbya da. Jokalari asko pasa dira txapelketa profesionala jokatzerara, eta amateurretan besteek baino fitxa gutxiago dute. Aurrekaldetan, bigarren eta hirugarren lerroetan ez duten indar handirik; hiru laurdenetako lerroak arriskatu egin behar du beraz. Bi talde britainiarren arteko partidua erabakiorra izango da, galtzaileak 'Egurrezko Koilara' jasotzeko arrisku handia du eta.



Frantziako Laurent Rodriguez.

Amateuritasuna kolokan

Bost Nazioetako Txapelketa, kirolaren amateuritasuna garbier mantendu duen esparrua izan da, orain arte. Profesional kutsua hartzen zuen guztia, txikieria izanda ere, baztertua zen. Biografia idatzi eta autore-eskubideak kobratu dituzten jokalariek ere, bizitza osorako zigortu izan dituzte.

Ez da erraza ordea egoerak bere horretan jarraitzea. Are zailagoa, 'Rugby League' profesionalak 'Rugby Union' amateurren oinarriak apurtzei uzten ez badio, jokalariek onetsuenei milioiak eskainiz.

Will Carling Ingalaterrako selekzio kapitainak 100 milioi pezeta (bost milioi libera) inguruko eskaintza bota du atzera. Hamahirunakako rugbya hamabosnakakoa irentsi nahian dabil, diruaren argudioaz.

Internacional Boardek eskua zabaldu zuen Edinburghen urrian egindako bileran. Hemendik aurrera, rugby jokalariek dirua jaso ahal izango dute iragarkietan agertzeagatik, hauek rugbyarekin zerikusirik ez dutenean.

Jokatzeagatik kobratuko duten egunak ere ez dirudi oso urrun. Dagoeneko, ezkutuko bideak erabiltzen dituenek ere bada. New Zelandeko Kirwanek, askoren eritziz munduko jokalaririk onena, bere herriko txapelketa eteten denean Italian jokatzen du. Eta zail da musutruk egiten duela sinestea.

LXI. edizioaren egutegia

Urtarrilak 19

Parise Frantzia-Eskozia
Cardiff Wales-Ingalaterra

Otsailak 2

Dublin Irlanda-Frantzia
Edinburgh Eskozia-Wales

Otsailak 16

Cardiff Wales-Irlanda
London Ingalaterra-Eskozia

Martxoak 2

Parise Frantzia-Wales
Dublin Irlanda-Ingalaterra

Martxoak 16

London Ingalaterra-Frantzia
Edinburgh Eskozia-Irlanda



SERGE BLANCO Euskal Herriko rugby selekzioarekin jokatzeko, ezkerretara, Kataluniaren aurka iragan azaroan. AITOR-en argazkian agertzen den gizonak Frantziako selekzioan jokatu du Bost

Nazioen Txapelketa. Ez da ordea euskaldun bakarra izango. Laskube eta Ondarts harroinak eta Lagisket zabaltzailea ondoan izango ditu kapitainak. Elizagoien, Altuna, Ibarluzia, Irazabal, Azarate eta abarrek badute ondorengorik.

Palmaresa

1970...	Wales eta Frantzia
1971	Wales
1972	Ez zen jokatu
1973	Berdinduak
1974	Irlanda
1975	Wales
1976	Wales
1977	Frantzia
1978	Wales
1979	Wales
1980	Ingalaterra
1981	Frantzia
1982	Irlanda
1983...	Frantzia eta Irlanda
1984	Eskozia
1985	Irlanda
1986..	Frantzia eta Eskozia
1987	Frantzia
1988...	Frantzia eta Wales
1989	Frantzia
1990	Eskozia